

Beste zenbait Iragarpen Ofizial

PORTUGALETEKO UDALA

IRAGARPENA, onibarren sailkapen xehekatuari eta iharduera egitarauari dagokienez, Alde Zaharreko Egitamu Berezia aldatzeko hasierako onarpena eman dela jendearen jakinaren gainean jartzeko dena. 5032

Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak

GARRAIO ETA HERRILAN SAILA

1744

AGINDUA, 1993ko maiatzaren 10ekoa, Garraio eta Herrilan Sailburuarena, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1993ko apirilaren 17ko 820 Ebazpena aplikatzeko, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren portuetan neurriak ezartzen dituen.

Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak joan den apirilaren 17an izandako bilkuran 820 Ebazpena hartu du, zeinak organo beraren 808 Ebazpena berresten baitu eta Jugoslaviako Errepublikaren (Serbia eta Montenegroren), eta Bosnia eta Herzegovinaren arteko egungo auziari amaiera eman asmoz, hainbat neurri ezartzen, bi alde bosnioek ere iadanik onetsi duten bake plana bete ahal izateko.

Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren Ebazpenarekin bat eginez, EEEK, Gai Orokorretarako Kontseiluak apirilaren 24ean hartutako Erabakiaren bidez, hainbat neurri hartu ditu, bake plana beteko dela bermatzeko Nazio Batuen aipatu Ebazpenean jasotako planteamenduak biltzen dituztenak eta neurri horiek, Elkarteko legeriak Organo horri garraio arloan emandako aginpi-deen barruan, EEEKo Kontseiluaren kasuan kasuko Arautegian isladatu beharko dira.

Nolanahi ere, Elkarteko legeriak ez die portu arloko aginpiderik eman Elkarteko organoei eta, hortaz, elkartekide diren estatuen barneko xedapenak behar dira Nazio Batuen 820 Ebazpenaren 16. idazatia eta EEEK horri buruz hartutako Erabakia bete ahal izateko.

Bestetik, Euskadiko Autonomi Estatutuaren 10.32 atalean ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomi Elkar-

Otros Anuncios Oficiales

AYUNTAMIENTO DE PORTUGALETE

ANUNCIO relativo a la información pública de la modificación del Plan Especial del Casco Viejo, sobre la calificación pormenorizada de solares y al Programa de Actuación, aprobada inicialmente. 5032

Disposiciones Generales del País Vasco

DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PUBLICAS

1744

ORDEN de 10 de mayo de 1993, del Consejero de Transportes y Obras Públicas, por la que se establecen medidas en los puertos de titularidad de la Comunidad Autónoma del País Vasco en aplicación de la Resolución del Consejo de Seguridad de las Naciones Unidas 820, de 17 abril de 1993.

El Consejo de Seguridad de Naciones Unidas, en su reunión del pasado día 17 de abril, ha adoptado la Resolución 820, que, reafirmando la 808 del citado Organismo, establece un conjunto de medidas dirigidas a poner fin al actual contencioso surgido entre la República Federativa de Yugoslavia (Servia y Montenegro) y Bosnia y Herzegovina, de forma que se dé cumplimiento a la aprobación del plan de paz aceptado por dos de las partes bosnias.

En forma acorde con la Resolución del Consejo de Seguridad de las Naciones Unidas, la CEE, a través del Consejo de Asuntos Generales, ha adoptado un conjunto de medidas, concretadas en un Acuerdo del pasado 24 de abril, que incorporan los planteamientos recogidos en la citada Resolución de Naciones Unidas, tendentes a garantizar el cumplimiento del plan de paz, que deberán plasmarse en el correspondiente Reglamento del Consejo de la CEE, en el ámbito de las competencias que la legislación comunitaria atribuye a dicho Organismo en materia de transportes.

Sin embargo, la legislación comunitaria no ha contemplado el otorgamiento de competencias a los órganos comunitarios en materia de puertos, de forma tal que se necesita una disposición interna de los países miembros al efecto de poder dar cumplimiento al apartado 16 de la Resolución 820 de Naciones Unidas y al Acuerdo adoptado al respecto por la CEE.

Por otra parte, en virtud de lo establecido en el artículo 10.32 del Estatuto de Autonomía para el País

teak aginpide eskusiboa du portuei dagokienean, horrek ezertan galarazi gabe Espainiako Konstituzioaren 149.1.20 atala, eta beraz, hari dagokio Autonomi Elkarteko Administrazioaren portuetan sartzeko baimena ematea untziei.

Horiek horrela, Garraio eta Herrilan Sailaren antolaketak eta eginkizunei buruzko apirilaren 23ko 266/1991 Dekretuak, otsailaren 11ko 24/1992 Dekretuak aldatutakoak, eman didan aginpidea erabiliz eta aipatu Ebazpen eta Erabakia ikusirik, horiek bete asmoz,

XEDATU DUT:

Atal bakarra.— Jugoslaviako Errepublika Federaleko (Serbia eta Montenegroko) Erregistroan izena emandako ezein untzik, ez eta untzien gehiengo interesak edo kontrola Jugoslaviako Errepublika Federaleko pertsonen nahiz enpresen eskutan daudenean edo Errepublika horretatik dihardutenek ezin izango dute Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren portuetan sartu, baldin eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluren 713 (1991), 757 (1992), 787 (1992) edo 820 (1993) Ebazpenak bortxatu dituztela edo bortxatzen ari direla susmatzen bada.

Arestiko idazatian xedaturikoa ez zaie aplikatuko Jugoslaviako Errepublika Federaleko (Bosnia eta Montenegroko) untziei, baldin eta untziaren segurtasuna, gizasemeen bizitza edo kutsaduraren kontrako borroka dela-eta arrazoi aski badago, beti ere, porturatzeko horrek ez badakar arrantza eta/edo merkataritza mailako ekintzarik.

AZKEN XEDAPENETAN LEHENA

Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Sailak Agindu hau bete ahal izateko behar diren neurriak hartuko ditu.

AZKEN XEDAPENETAN BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1993ko maiatzak 10.

Garraio eta Herrilan Sailburua,
JOSU BERGARA ETXEBARRIA.

Vasco, la Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia exclusiva en materia de puertos, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 149.1.20 de la Constitución Española, y por tanto le corresponde autorizar el acceso de buques a los puertos de titularidad autonómica.

En su virtud, en uso de la competencia que tengo atribuida por Decreto 266/1991, de 23 de abril, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Transportes y Obras Públicas, modificado por Decreto 24/1992, de 11 de febrero, a la vista de la Resolución y del Acuerdo citados, con el fin de dar cumplimiento a lo dispuesto en los mismos,

DISPONGO:

Artículo único.— Ningún buque inscrito en el Registro de la República Federativa de Yugoslavia (Servia y Montenegro) o en el que tengan intereses mayoritarios o de control personas o empresas de la República Federativa de Yugoslavia (Servia y Montenegro) o que realice operaciones a partir de ella, del que se sospeche que ha violado o viola las Resoluciones 713 (1991), 757 (1992), 787 (1992) ó 820 (1993) del Consejo de Seguridad de las Naciones Unidas, podrá acceder a puertos de titularidad de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Lo dispuesto en el párrafo anterior no será de aplicación a buques de la República Federativa de Yugoslavia (Servia y Montenegro) que deban acceder a puertos de titularidad de la Comunidad Autónoma del País Vasco por razones relacionadas con la seguridad del buque, de la vida humana en la mar o por motivos de lucha contra la contaminación, siempre que ello no conlleve la realización de operaciones de carácter pesquero y/o comercial.

DISPOSICION FINAL PRIMERA

Por el Departamento de Transportes y Obras Públicas del Gobierno Vasco se adoptarán las medidas precisas para dar cumplimiento a esta Orden.

DISPOSICION FINAL SEGUNDA

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de mayo de 1993.

El Consejero de Transportes y Obras Públicas,
JOSU BERGARA ETXEBARRIA.